

Sagarrondotik dator jaigiroa

Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkarateak lau egunetako jaialdi oparoa antolatu du. Horri esker, aurtengo edizioak lagun askoren arreta bereganatzeko osagai guztiak ditu. Otsailaren 26an hasiko da sagardo festa.

Joan den urteko edizioa ez zen oharkabean pasa. Zenbakiei begiratzeara besterik ez dago: 25.000 lagun baino gehiago bildu zituen iaz Sagarrondotik ekitaldiak. Dena den, iaz jaiaren gune nagusia Hernani izan bazen, aurtengo egitaraua, Urnieta, Usurbil eta Astigarragako udalerrietara ere zabaltzeko ahalegina egin da. Haur, gazte eta helduei zuzendutako saioekin belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ziurtatu nahi da.

IAZKO EDIZIOAN
25.000 LAGUN BILDU
ZITUEN SAGARRONDOTIK
EKITALDIAN

Otsailak 26, osteguna Has dadila festa!

Otsailaren 26an hasiko da eromena. Hortik aurrera, atsedenerako tarte gutxi emango du egitarau oparoak. Urnietako Sarobe antzokian hasiko da asteburu luzea. Besteak beste, Real Sociedad taldeak "Sagardoaren Mezulariak" ikurra jasoko du. Bingen Mendizabal, Mikel Urdangarin, Kirmen Uribe eta Rafa Ruedak eskainiko duten "Zaharregia, txikiegia agian" emanaldiarekin amaituko da inaugurazio ekitaldia.

Otsailak 27/28 Karpa bete doinu

Iaz bezala, Sagarrondotik ekitaldiaren aitzakiarekin puntako musika tal-



SAGARRONDOTIK JAIALDIAREN EKITALDI NAGUSIA IGANDEKOA IZANGO DA, ASTIGARRAGAKO HERRIAN HAIN ZUZEN.

deak hurbilduko dira gure artera. Hernanin ipiniko den karpatik honako talde hauek pasako dira. Otsailaren 27an, Fito&Fitipaldis, Reincidentes (Andaluzia), Sutagar eta Orisha's (Kuba) taldeekin leporaino beteko da aipatu karpa. Hurrengo eguneko saioa ere ez da makala. Otsailaren 28an, Ari (Madrid), Kuraia, Ojos de Brujo (Katalunia) eta Fermin Muguruza eta Kontrabanda arituko dira zuzenean. 1.200 pertsonentzat egokitutako karpa horretan, ez dira bestelako zerbitzu guneak faltako, janaria eta edaria kasu.

Otsailak 29, igandea Sagardoa, Astigarragako alkate!

Orain arte azaldutako gutzia gutxi balitz, aurtengo edizioko ekitaldi kuttunena azken egunerako utzi da; otsailaren 29an, igandez, Astigarragak bilduko duena: Euskal Herriko II. Sagardo Mostra. Euskal Herriko 60 sagardogileren sagardoaz gozatzeko aukera izango dugu. Bide batez, euskal produktuen azoka ere antolatuko da.

Trikitilariek, dantzariak eta bertsolariak alaituko dute mostra eta baita euskal produktuen azoka ere. Dena prest dago. Orain, gure esku dago ekitaldien arrakasta ziurtatzea. On egin!

DEMA-PLAZAN HERRI KIROLAK

Sagarrondotik jaialdian sagardoa izango da protagonista nagusia. Baina ez bakarria. Musika saioak, bertsolariak, trikitilariak, dastaketa komentatuak eta herri-kirolak ere antolatuko dira sagardoaren lurraldean. Nola ez, Usurbilgo dema-plaza izango da herri-kirolen sehaska. Lehia herri artekoa izango da, otsailaren 28an, larunbata, hain zuzen. Parez pare arituko dira Usurbil, Hernani, Urnieta eta Astigarragako ordezkariak.

